



Accentus koruak irekiko du gaur 38. Abesbatza Lehiaketa

TOLOSA ▶ Leidor aretoan izango da inaugurazio kontzertua 20:00etan, frantziarren eskutik

AKUSTIKA ▶ «Leidor behar bezala probatzeko kalitatezko koruak ekarri ditugu», dio Arretzek ▶ 2-3



Santa Cecilia, Hirusta eta Landarbaso abesbatzak larunbatean egindako topaketan. KLJSK



E. EZEIZA

Euskara eta kirola bat eginik Ikaspilotan

VILLABONA ▶ Atzo goizean egin zuten Euskal Soin jarduerak antolatutako jaia Alegiko, Anoetako eta Villabonako ikasleek ▶ 4

TOLOSA ▶

Brasilen, GKE baten lana gertutik ezagutuz

Maialen Zubeldia eta Amaia Mancisidor bertan izan dira ▶ 6



Amaia Mancisidor eta Maialen Zubeldia. L.M.

ALEGIA ▶

Etzi ekingo diote Azaro Kulturalari Kultur Etxean

'Alegia, lehen eta orain' argazki erakusketa da lehen ekitaldia ▶ 5

TOLOSAKO 38. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Oihala lehen aldiz igotzeko prest

Gaur ekingo dio Tolosako 38. Abesbatza Lehiaketak; Frantziako Accentus koruak eskainiko du inaugurazio kontzertua Leidorren, 20:00etatik aurrera



Santa Cecilia, Hirusta eta Landarbaso abesbatzako kideak, elkarrekin abesten, larunbat gauean, Leidor aretoan. KLISK

IÑIGO TERRADILLOS

38. edizioa ere iritsi da azkenean, eta gaur izango da Tolosako Abesbatza Lehiaketaren inaugurazio ofiziala egingo duteneko. 20:00etatik aurrera izango da Leidor aretoan, eta hasierako kontzertua eskainiko duen taldea Frantziatik etorritako Accentus izango da. Laurence Equilbey-ren zuzendaritzapean, ospe eta izen handiko koro honen eskutik musika erromantikoaz gozatzeko aukera izango da.

Frantziarrek irekiko dute lehiaketa, eta hauen ondoren, azaroaren 4ra bitarte herrialde desberdinetako 26 abesbatza ariko dira lehian, nor baino nor. Egun horretan bertan, hau da, larunbatean bertan, urtero bezala Beotibar pilotalekuan egiten den dantzaldian emango du jakitera epaimahaia erabakia, eta hurrengo egunean, igandean, Leidor aretoan egingo den lehiaketa amaierako saioa eta sari banaketarekin emango zaito amaiera aurten-goari. Ordurarte baina, kontzertu eta egun ugari igaroko dira eta abesbatzek euren onena eman beharko dute saririk irabazi nahi badute behintzat. Aurten, gainera euskaldunak ere izango dira sari horien bila. Gasteizko Vocalia eta Oñatik Ganbara, hain zuzen.

Topaketa berezia

Lehiaketari hasiera ofiziala gaur gauean emango bazaio ere, larunbat gauean hasi zela motorrak berotzen esan daiteke, izan ere, egitarauaren baitan, hiru abesbatzen arteko topaketaz gozatzeko aukera izan zen Leidor aretoan, Oreretako Hirusta eta Landarbaso eta Donostiako Santa Cecilia, hain zuzen. Hala, 300 lagun inguru gerturatu ziren 3 abesbatzak banaka nahiz elkarrekin, Xabier Sarasolaren zuzendaritzapean, nola kantatzen zuten ikustera.

Frantziar doinuak lehiaketari hasiera emateko

Accentus abesbatzak irekiko du, gaur 20:00etan, Leidorren, lehiaketa. *A capella* errepertorioko lan handienak interpretatu eta sormen garaikidea bultzatzeko asmoz Laurence Equilbey-k eratu zuen Frantziako abesbatza. Gaur egun Frantziako eta nazioarteko jaialdi garrantzitsuenetan aurkeztu den 32 abeslari profesionalen osatutako taldea da.

A capella kontzertuez eta *Axe/Accentus* izenburupeko bakarlariren talde garaikideez gain, taldeak sarritan laguntzen die, zuzendari eta orkestra ospetsuei (Pierre Boulez, Jonathan Nott, Christoph Eschenbach, Orchestre de Paris, Ensemble Intercontemporain, Orchestre de l'Opera de

Rouen / Haute Normandie, Concerto Köln, Akademie fur Alte Musik).

Cite dela musique-ko bazkide pribilegiatua da taldea baita ere, eta berarekin 2003 urteaz geroztik Ahots Artearen Bi Urtekoa antolatzen du.

Bere lehen grabaketatik kritika onak jaso ditu; 1995ean Arte Ederretako Akademiaren eskutik Liliane Bettencourt saria jaso zuen, eta *Transcriptions* diska 2004ko Grammy Sarietarako izendatua izan da. L'Ensemble Intercontemporain-erekin batera *Shoenbergi* grabazio berria argitaratu zuen 2005eko maiatzean. Jasotako sarien artean, 2005ean Urteko Taldearen izenburua eman zieten frantziarrei. ◀



Frantziako Accentus abesbatzako partaideak. HITZA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ANA ARRETXE ▶ CIT-EKO LEHENDAKARIA

«Leidor behar bezala probatzeko kalitatezko koruak ekarri ditugu»



JOXEMI SAIZAR

Tolosako 38. Abesbatza Lehiaketaren inaugurazio ofiziala gaur izango da, baina guztia behar bezala prestatuta egoteko Tolosako Ekinbide Etxea (TEE-CIT) buru-belarri aritu da hilibeteetan zehar. Bertako lehendakariarekin, Ana Arretxekin, izan gara, aurtengo lehiaketaren nondik norakoak jakin asmoz.

Beste urteekin alderatuz zer du berezia aurtengo Abesbatza Lehiaketak?

Urtero izaten du maila altua Tolosako Abesbatza Lehiaketak, baina aurtengoa berezia izatea nahi genuen. Izan ere, batetik, Tolosaren 750. urteurrena ari gara ospatzen, eta bestetik, Leidor berritua jadanik prest dagoela kontuan hartuta, honen egitura eta akustika behar bezala probatzeko kalitatezko koruak ekarri nahi izan ditugu. Horregatik, saiatu gara aurten

batez ere, beste urteetan baino gehiago.

Berrikuntzei dagokionez, zer da aipatzekoa?

Aurten ahots berdinen lehiaketa ere egingo da. Koru nahikoa ez zeudela kontuan hartuta, lehiaketa hau bi urtetik behin egitea erabaki genuen. Bestalde aipatzekoa da, baita ere, lehen aldiz, Puerto Rico, Indonesia eta Turkiako abesbatzek hartuko dute parte.

Euskal Herriko abesbatzak ere ariko dira aurtengoan.

Bai. Gasteizko Vocalia eta Oñatiko Ganbara abesbatzek hartuko dute parte. Gasteiztarrak 2002koan ere aritu ziren, baina Oñatikoentzat estreinako aldia da. Biak ala biak gogotsu hartu dute lehiaketan parte hartzearena, eta oso ondo prestatuta datoz.

Behartutako egitarauan ere bada berezitasunik.

Ahots nahasietan, berdinetan nahiz haur abesbatzetan beti izaten da egitarau behartua. Abesti horien artean, berezia da Alejandro Yaguero eskatu diogun Samaniegoren fabuletan oinarriturikoa, *El amor y la locura*, hain zuzen. Tolosaren urteurrena aintzat hartuta egin dugu hori. Bestalde, Aita Donostiaren 50. urteurrena ospatzen da aurten, eta hori dela eta, bere *Hiru euskal doinu* ere sartu nahi izan dugu.

Gaur hasi eta igandea bitarte ez da etenik izango. Nolakoak dira egun hauek zuretzat?

Bete beteak. Gelditu gabe egoten gara lanean, eta ia egun guztia Leidor aretoan emango dugu. Baina horretaz gain disfrutatu ere, asko disfrutatzen dugu; bai abesbatzak entzuten, bai eta jende asko gerturatzten dela ikusten ere. Izan ere, oso polita da ikustea zuk egindako lana asko gustatzen zaiola jendeari. Egunik politena biharkoa izango da, umeen lehiaketarena, jende ugari joaten da urtero urtero ikustera, baita hurrutitik datorrena ere, Madriletik, esaterako.

Lehiaketaren egun hauek nolakoak dira Tolosarentzat?

Herrialde desberdinetako hainbeste jende Tolosan egun hauetan ikustea oso garrantzitsua da. Tolosa ezaguna da nazioartean Abesbatza Lehiaketatik eta hemendik gutxira izango diren txotxongiloengatik, eta uste dut hori kontuan hartzeko datua dela.

Inaugurazio ofiziala gaur izango den arren, larunbateko topaketan hasi zen motorrak berotzen.

300 lagun inguru elkartu ginen Leidorren; oso ondo aritu ziren Santa Cecilia, Hirusta eta Landarbaso abesbatzakoak, bai banaka bai eta elkarrekin abesturiko kantekin. ◀

EGITARAUA ▶

GAUR

Leidor aretoa (20:00).

▶ Accentus abesbatza (Frantzia).

BIHAR

Leidor aretoa (11:00).

Haur abesbatzak

▶ Pueri Cantores de Torun (Polonia).
 ▶ Gewandhaus Leipzig (Alemania).
 ▶ Hamilton Children's Choir (Kanada).
 ▶ Tallinn Music High School (Estonia).
 ▶ Wesna Children's Choir (Errusia).

Leidor aretoa (16:00).

Folklore atala

▶ Nicolaev Female Academic Chorus (Ukrania).
 ▶ Oñatiko Ganbara abesbatza (Euskal Herria).
 ▶ Musikhochschule Manheim (Alemania).
 ▶ Apz Tone Tomsic (Eslovenia).

Polifonia atala

▶ Te Deum Adoramus (Bulgaria).
 ▶ Mikrokosmos (Frantzia).
 ▶ Vocalia (Euskal Herria).

Leidor aretoa (20:00).

Polifonia atala

▶ Nicolaev Female Academic Chorus (Ukrania).
 ▶ Oñatiko Ganbara abesbatza (Euskal Herria).
 ▶ Musikhochschule Manheim (Alemania).
 ▶ Apz Tone Tomsic (Eslovenia).

Folklore atala

▶ Te Deum Adoramus (Bulgaria).
 ▶ Mikrokosmos (Frantzia).
 ▶ Vocalia (Euskal Herria).

ETZI, AZAROAK 2

Leidor aretoa (19:30).

Musika Profanoa

▶ Ensemble Vocal Peñalosa (Suitza).
 ▶ Aros Vocalensemble (Suedia).
 ▶ Ancapella (Turkia).
 ▶ Anima (Errusia).
 ▶ Voces8 (Erresuma Batua).
 ▶ Cardinal Singers (AEB).

AZAROAK 3

Leidor aretoa (18:00).

Polifonia atala

▶ Voces Cantabiles (Erresuma Batua).
 ▶ Bottega Musicale (Italia).
 ▶ Ateneo Chamber Singers (Filipinak).
 ▶ El Leon de oro (Asturias, Espainia).
 ▶ Coralía (Puerto Rico).

Leidor aretoa (22:00).

Folklore atala

▶ Voces Cantabiles (Erresuma Batua).
 ▶ Bottega Musicale (Italia).
 ▶ Ateneo Chamber Singers (Filipinak).
 ▶ Coralía (Puerto Rico).

AZAROAK 4

Santa Klara elizan (11:00).

Musika Sakratua

▶ Ensemble Vocal Peñalosa (Suitza).
 ▶ Aros Vocalensemble (Suedia).
 ▶ Ancapella (Turkia).
 ▶ Anima (Errusia).
 ▶ Voces8 (Erresuma Batua).
 ▶ Cardinal Singers (Ameriketako Estatu Batuak).

Leidor aretoa (16:00).

Folklore atala

▶ Batavia Madrigal Singers (Indonesia).
 ▶ Studio Vocale Karlsruhe (Alemania).
 ▶ El Leon de oro (Asturias, Espainia).

Polifonia atala

▶ Vocalis (Norvegia).
 ▶ Cardinal Singers (Ameriketako Estatu Batuak).

Leidor aretoa (19:30).

Polifonia atala

▶ Batavia Madrigal Singers (Indonesia).
 ▶ Studio Vocale Karlsruhe (Alemania).

Folklore atala

▶ Vocalis (Norvegia).
 ▶ Cardinal Singers (AEB).

AZAROAK 5

Leidor aretoa (11:00).

▶ Amaierako saioa.

San Frantzisko eliza (19:00).

▶ University of Louisville Cardinal (AEB)ren kontzertua.



38. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

gizarte ekintza

kultura

Babesle Ofiziala

kutxa
 zer nahi duzu bihar?

KIROLAK ▶

Euskara eta kirola uztartuz Ikaspilotan

Villabonan egin zuten atzo Euskal Soin jarduera proiektuak antolatutako jai; hurrengo saioa Ibarren egingo dute



Atzo Villabonan, Euskal Soin Jardueren VII. jaialdian gauzatutako jokuetakoko bat. E. EZEIZA



Jolasen artean, sokatiran ere lehiatu ziren gazteak. E. EZEIZA



Ikasle guztiak lurrean eserita, antolatzaileen azalpenak entzuten. E.E.

ESTI EZEIZA

Euskal Soin jarduera proiektuak antolatuta, atzo egin zuten denboraldi honetako, eskualdeko lehen Ikaspilota jaialdia. Villabonako Trinkete plazan elkartu ziren Alegiko Aralar ikastolakoak, Anoetako Herri ikastolakoak eta Villabonako Jesusen Bihotzakakoak.

10:00etatik 12:00etara, DBH-ko 4. mailakoek hartu zuten parte atzokoan, Euskal Soin Jardueren VII. jaialdian. Gipuzkoako herri gehienetan burutzen diren jaialdi hauetan, ikastola eta ikastetxe ugari hartzen dute parte. Saio hauen helburua, euskal joko eta jolasak sustatzea da, bide batez, ikastolen arteko harremana ere sendotuz eta euskal kultura trasmisioa garatuz.

Eskualde mailan, bost herri-tan burutzen dira saio hauek, Villabona, Ibarra, Anoeta eta Tolosan. Hurrengo saioa azaroren 16an izango da. Ibarren, DBH-ko 3. mailakoentzat, Euskal Soin Jarduera V. Jaialdia ospatuko da.

LEITZA ▶

Abel Barriola, lau onenen artean dago berriro ere

ERREDAKZIOA

Olaizola II.a, Titin III.a eta Irujorekin batera, finalerdietako ligaxkan ariko da Abel Barriola. Igandean, 17 eta 8ko emaitzarekin irabazi zion Patxi Ruiz. Azken honek, jokuan ari zela, min hartu zuen eskuin zangoko bikian, zabaletik pilota bat itzultzeko ahalgina egitean. Gertatutakoaren ondoren, finalerdietarako txartela leitzarrentzat izan zen.

Barriolak baino zorte gutxiago izan zuen Oinatz Bengoetxeak larunbatean. Titin III.aren aurka lehiatu zen hau eta 22-11ko emaitzarekin galdu zuen Tricico (Errioxa, Espainia) beteranoaren aurka. Partida bizia izan zen, eta Titinek beste behin erakutsi zuen oraindik ere indartsu jarraitzen duela.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

KOMUNIKABIDEAK ▶



Irrati esatari nola izan ikasten

E. Ezeiza ▶ Joan den larunbatean izan zen irrati esatari izateko lehenengo ikastaroa Txolarren. Irratiko arduradunek komunikabidearen inguruko funtzionamendua eta antolaketa azaldu zieten bertaratu zirenei. Hurrengo saioa larunbat honetan izango da, arratsaldeko lauretatik aurrera. ESTI EZEIZA

ASTEASU ▶ KULTURA



Asteasu musikaz blai

E. Ezeiza ▶ Larunbatean, Asteasun urte honetako bigarren kantu jira antolatu zuten. Hala, euskal abesti zaharrak berreskuratzeke eta kantatzeko ohitura zabaltzeko asmoz, 60 lagunetik gora ibili ziren abesten Asteasun barrera. Herriko kaleetan nahiz tabernetan kantatu zuten, jai giroan. NAIARA GARCIA

ALEGIA ▶ KULTURA



Larunbatean Alegiako dantzariak saioa egingo dute, beste hainbat herrietakoekin batera. N. URBIZU

Etzi ekingo diote Azaro Kulturalari herriko Kultur Etxean

‘Alegia lehen eta orain’, argazki erakusketa izango da lehen ekitaldia

NEREA URBIZU

Azaro guztian zehar Alegiko Kultur Etxeak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Denak kulturarekin daude lotuak, eta adin guztientzat pentsatuta. Ia guztiak Kultur Etxean bertan egingo dira.

Hasteko, etzi, 19:30ean argazki erakusketa izango da. Gaia *Alegia lehen eta orain* izango da. Izenak berak dioen moduan, Alegia bera izango da garrantzia duena, eta gaur egun erabiltzen diren hainbat leku eraldaturik ikusi ahal izango dira, denboran herrian eman diren aldaketak ikusteko

aukera, beraz. Azaroaren 13ra arte egongo da erakusketa, Kultur Etxean eta Alegiko argazki taldeak jarritakoak dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, «duela 4 edo 5 urte ere erakusketa bera jarri genuen eta arrakasta handia izan zuela ikusirik, berriro jartzea erabaki dugu».

Larunbatean, ordea, dantzariak izango dira herrian zehar. 17:00etan bilduko dira Anoeta, Altzo, Villabona, Irura, Tolosa, Ibarra, Usubil eta Alegiko bertako dantzari batzuk, eta kalejira egingo dute askaldu ondoren, bai herrian eta baita auzoetan ere.

Igandean, Artikutzara

Igandean, berriz, mendira joateko aukera zabaldu dute Alegikoek. Hilean behin egiten dutena egingo dute, baina oraingoan Artikutza bisitatuko dute, Goizueta ingurua, alegia. Bi ibilbide ekingo dituzte: bata txikiagokoei zuzendutakoa, eta bertan perretxiokoak aztertu eta bilatuko dituzte, aurrerago Ibon Azpilikuetak gai honen gaineko hitzaldia emango duenarekin batera, hain zuzen. Bestea, aldiz, luzeagoa izango da eta ez dute perretxiarik aztertuko.

08:30ean aterako dira plaza-tik, eta eguerdi partean egingo dute buelta Alegira.

Hurrengo astean ekitaldi berezi gehiago antolatu dituzte: besteen artean, txotxongiloak.

IRURA ▶

Gaur Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldia, doan

Pirritx eta Porrotx pailazoan *Maite Zaitut* ikuskizuna egingo dute gaur, 18:00etatik aurrera, Iruran. San Migel jailetan bertan behera geratu zen emanaldia, euri-jasa bota zuelako. Antolatzaileek jakinarazi dute, oraingoan, Irurako frontoian izango dela eta festetan bezala, doan. Beraz, herriko alkateak festetako balantzea egiteko garaian esan bezala egingo dute: pailazoan emanaldia behar bezala eskaini, alegia.

TOLOSA ▶

Euskal dantzak, ostegunero Amarozen

Ostegunero, 20:30etik aurrera Amarozen Auzo Elkartearen lokaletan euskal dantzak irakasten ariko dira. Ikastaroaren helburua ondo pasatzea eta euskal dantzak ikastea da, eta ez jendearen aurrean dantzatzea: izan ere, antolatzaileen arabera, «jendea lotsatu egiten da emanaldietan, baina ikasleak ez daude horretara behartuta, eta nahi duenak bakarrik dantzatzen du jendearen aurrean».

TOLOSA ▶

Presoen familiei diru-laguntza

Gipuzkoatik kanpoko kartzeletan dauden presoen familiei bisi-tak egiteak dakartzan gastuei aurre egiteko, Tolosako Udalak diru-laguntzaren eskaera aurkezteko epea irekia dauka eta azaroaren 10ean amaituko da epea.

OREXA ▶ KULTURA



Galtza motzetan gaztainak jaten, Kultur Astearen baitan

N. Urbizu ▶ Antzerkia, gaztain jatea eta jendearen arteko giroa Orexan izan da. Kultur Asteko egitarauaren barne, oraindik badute zertaz gozatu, izan ere, gaur *Tabuak salda egiteko* emanaldia, Pako Aristi eta Mikel Markezzen eskutik izango dute. Bihar, ume jolasak eta merienda izango dira, 16:30ean. HITZA

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-maila: enia@inmoenia.com
www.inmoenia.com

Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko moduan.
Berrobi. Estilo rustikoa (aldizkarietan bezala!). 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.
Irura. Etxezarreta, 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.
Amezketza, Berastegi, Gabiria, Hernalde, Ibarra. Hainbat etxe bifamiliar, eta abiki, eraikuntza

berrikoak eta bigarren eskukoak. Aukera bikaina.
Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan.
Berokuntzarekin.
Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela, sukaldea, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.
Leaburu bidean. 600 m2ko pabiloia alokairuan, bi solairuetan banatua, 2.500 m2ko zelaiarekin.

Tolosa. Beotibar. 36 m2. Altua, 150.000 euro.
Tolosa. Alde Zaharra, 2 logela, sukaldea, egongela, eta bainugela. Hainbat berrikuntza. 168.285 euro.
Tolosa. Berazubi. Berritzeko aukera anitzak. Igogailu proiektua onartuta.
Tolosa. Siervas de Jesus. 3 logela, sukaldea, egongela, eta 2 bainugela.
Tolosa. Zumalakarregi. 92m2. 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berrituta. Estreinatze. Garajearekin.

Tolosa. La Estrella. Oso egoera onean. Igogailu eta garajearekin.
Tolosa. Isaac Lopez Mendizabal, 4 logela. Igogailua eta garajearekin. Egoera ona.
Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.
Villabona. Kale Berria. Eraikuntza berria. Pisu altua. 100 m2. Garaje itxiarekin.
Legorreta. Trastelekua salmentan. Bizikleta edo motorrentzat egokia.

GIZARTEA ▶

LEIRE MONTES

Betidanik nahi izan dugu horrelako esperientzia bat probatzea. Baina ez genuen sekula pentsatu azkenean nahi hori errealitate bihurtuko zenik!», diote, pozik, Amaia Mancisidorrek (Tolosa, 1983) eta Maialen Zubeldiak (Tolosa, 1982). Hilabete igaro dute Brasilen (uztailaren 12tik abuztuaren 14a arte), Gobernador Valadares hirian, Minas Gerais estatuan, «hango errealitatea aurrez aurre ezagutzen». Hilabete motz egiten dela diote, baina gustura daude bizitakoarekin eta ikasi duten guztiarekin.

Eskolapioen bidez iritsi zitzaizen Brasilera joateko aukera. Boliviaren eta Brasilen artean hautatu egin behar zuten, eta bigarrenera joatea erabaki zuten, «irudituz zitzailako gauza gehiago zegoela egiteko». Neska iruindar batekin joan ziren, eta han etxe batean egon ziren, Iruñeko bi senar-emazterekin, hiru urterako hara joan direnak. Izan ere, hango proiektu asko Iruñeko Eskolapioen bidez sortu dira.

Lau lagun horiek, hain zuzen ere, koordinatzen dituzte hango proiektuak, sortutako Grupo Gente Nova (GGN) Gobernu Kanpoko Erakundearen (GKE) bidez. Haiekin batera ari dira ere, besteak beste, psikologo bat, gizarte langile bat edota gizarte laguntzaile bat, bertakoak denak. Denera, 7 langile ditu erakundeak, eta beste guztiak boluntarioak dira, ingurukoak. «Hemendik hasi dira proiektuak aurrera eramaten, baina helburua hango lekuko hartzea da pixkanaka. Azken finean, haiei dagokie beraien herria eraikitzea, eta horretan laguntzen

Herri baten etorkizuna eraikitzen

Amaia Mancisidor eta Maialen Zubeldia Brasilen izan dira, hango egoera eta GKE baten lana aurrez aurre ezagutzen

saiatzeko ari dira», dio Mancisidorrek.

Lau ardatz ditu GGNren proiektuak: Casa Lar, Haurrak lan mundutik ateratzeko programa, ekintzak babes-zentron eta lan munduratzeko ikastaroak. Denak bisitatzen, beste hainbat erakunderen lana ikusten eta hango errealitatea ezagutzen eman zituzten egunak bi gazte tolosarrek.

Umeen eta familien egoera

«Arazorik handiena umeen eta euren familien egoera da. Guraso askori ez zaio inporta seme-alabek egiten dutena, eta ume asko kalean pasatzen dituzte orduak. Delinkuentzia handia dago, eta umeei ez badietuz ezer eskaintzen bandedan edota droga munduan sartzeko arriskua dago», azaldu du Zubeldiak.

Horregatik gaketat jotzen dute kontzientiazioa, etorkizuna eraikitzeko: «Zailena familien jarrera aldatzea da. Umeen lan egiteaz gain, oso garrantzitsua da familiekin ere aritzea. Dutenarekin konformatu dira asko. Baina denon artean egoera alda dezakegu. Bertakoak kontzientziatzea ezinbestekoa da, gauzak lor ditzaketela sinis dezaten».

Kontraste handiko lurraldea da Brasil. «Pobreak oso pobre-



Ezkereskuin, Amaia Mancisidor eta Maialen Zubeldia. LEIRE MONTES

ak dira, eta aberatsak oso aberatsak, alde sekulakoa da. Azken egunetan Bello Horizonte inguruan izan ginen, eta hortik Laguna Inglesa izenokora joan ginen. Zer nolako luxua zegoen han! Egun batzuk lehenago fa-

beletan bizi izan genuena gogoratzeak tristetu eta, era berean, haserretu ere egiten zaitu».

«Lurralde aberatsa da Brasil, eta baliabideak badaude, baina ez denontzat. Joan ginen etxe askotan ez zuten ezer, bai-

AMAIA MANCISIDOR KOOPERANTEA

«Helburua hangoek lekuko hartzea da pixkanaka, haiei dagokie-eta beraien herria eraikitzea»

MAIALEN ZUBELDIA KOOPERANTEA

«Familiak eta bertakoak kontzientziatzea ezinbestekoa da, gauzak lor ditzaketela sinis dezaten»

na dena eman ziguten. Dauka tenarekin pozik bizi dira, eta irribarra ahoan hartzen gintuzten», dio Mancisidorrek.

Egoera politikoa ezagutzeko aukera ere izan dute bi gazteek. «Lurralde aberatsa da, baina pribatizazio handia dago, eta korrupzio izugarria gobernuan. Lula gauza asko ari da egiten, eta jendea pozik dago; baina Lula bakarrik ezin du hainbeste urtetako injustizia eta kudeaketa txarra aldatu hain denbora gutxian, horrela asko behar dira», adierazi du Zubeldiak.

Hilabete motz egiten zaien arren, esperientziak «barruan zerbait mugitu» die. Gustura errepikatuko lukete, «horra edo beste edozein lekutara, beti ere ikasteko eta laguntzeko gogoz». Gazteei eta, oro har denei, gonbita egin nahi diete, halaber. «Lurralde baten egoera ulertzeko aurrez aurre ezagutzea bezalakorik ez dago, eta guk zorte hori izan dugu. Gogorra da ikusten duzuna; baina esperientzia gozada bat izan da, amets bat bezala».

GRUPO GENTE NOVA-REN PROIEKTUA ▶ LAU ARDATZ

Grupo Gente Nova (GGN) Brasilgo Minas Gerais estatuan lan egiten duen Gobernu Kanpoko Erakunde da. Zehazki, Querosene, Carapina eta Santa Helena auzoetan aritzen dira, Gobernador Valadares hirian. Lau ardatz nagusi ditu haien proiektuak:

Casa Lar. Umeentzako abegi etxeak dira, eta neskak eta mutilak hartzen dituzte.

«Gehienak ez dira mistoak, eta anai-arrebek askotan banandu egin behar izaten dute; hemen, behintzat, familia ez da gutziz apurtzen». Bi seme-alabekin etxean bertan bizi diren aita eta ama sozial bat dute haurrek, «hala bi erreferente izateko»; eta haien jarrera egokia izan behar du, «eredua izan behar

dutelako». Gogorra da umeen haurtzaroa: «Aitak askotan alde egin du, ama alkoholikoa da, edo abusua jasan dituzte...

Familia giroa eman nahi zaie etxe hauetan». Bi etxe dituzte, eta zortzina haur daude.

PETI (Haurrak lan mundutik ateratzeko programa). Brasil

osoan aurrera eramaten ari diren proiektuarekin bat dator. Haurrak lan mundutik ateratzeko zen oinarritzko helburua, baina hau pixkanaka lortzen ari direla eta, umeak kalean ez egoteko programa ere bada orain. Egunean lau ordu zentro batera joaten dira

gaztekoak, eta arau batzuk bete behar dituzte; besteak beste, eskolara joateko obligazioa dute. Hala, bi txanda daude: goizez joaten direnek arratsaldean hartzen dituzte eskolak, eta arratsaldekoak goizean joaten dira eskolara. Familiak 30 realeko diru

laguntza jasotzen du konpromiso hau hartzeagatik. Jateko ematen zaie haurrei.

Ekintzak babes-zentroan. Hara joaten diren haurren familiek «zerbait sinbolikoa» ordaintzen dute; «gehienbat, hartu duten konpromisoa betetzera behartzeko». Ikastaroak eskaintzen dizkiete: baleta, capoeira, bordatuak, informatika, ingelesa...

«Umeekin lan egiteaz gain, haien familiekin edo haien arduradunenkin aritzea oso garrantzitsutzat jotzen dute».

Lan munduratzeko ikastaroak. 16 urtetik gorakoek zuzenduta daude. Enpresa homologatu batek ematen die titulu bat ikastaroa amaitzean, eta horrela lan munduan sara daitezke. Informatika, estetika, ilepainketa, aroztégia, bordatua... eskaintzen dituzte.



Ezkerrean, Carapinako fabeletako haurrekin; eskuinean, GGNko zuzendaritza taldearen bilera. HITZA



LEITZA ▶ GIZARTEA



Leitzako kanposantua goiz eguzkitsu batean. N. GARZIA

Hilerria, atzo eta gaur

Kanposantuek egun duten garrantzia gauza berri xamarra dela azaldu dute Juan Bautista Irazokik, Leitzako abade ohiak, eta Patxi Izok, abade berriak

NAIARA GARZIA

Santu Guztien Eguna ez da hildakoak gurtzeko okasio hutsa soilik. Egun honen seriotasun eta tristuratik gaindi, familiarentzat egun hunkigarria izan ohi da, Juan Bautista apez ohiak dioen bezala, «kanpoan bizi direnak ere herrira etortzen baitira». Familia giroan ospatzen da Santu Guztien Eguna, beraz, baina ospakizunak bezperan, hau da, gaur bertan hasiko dira, urtero bezala, arratsaldean kanposantuan hildakoen omenez errezo batzuk egiten baitituzte. «Jendea oso eskertuta gelditzen da bere hildakoren izena esaten duzunean», dio Juan Bautistak. Bihar, berriz, meza nagusia eskainiko dute elizan, eta gero, bakoitza bere intimitatean, kanposantura joanen da. «Mezara etortzen ez den jende asko ere gero hilerrian biltzen da».

Desakralizazioak bazter guztiak ukitzen dituen garai hauetan, hiriguneetan bereziki fede erlijiosoaren indarra itzaltzen dihoan arren, hildakoen oroimena da, beharbada, desakralizaziotik at mantentzen den esparru bakarra. Izan ere, «mundu guztiak difuntuei errespetu handia die». Juan Bautistaren ustez, hilerriak



Juan Bautista, abade ohiak, eta Patxi Izok, abade berria. N. GARZIA

gurtzeko modua, hau da, ehorzketa, eta honen ondoren heldu dena, joandakoak gogoan izateko errituak ospatzea, ez dagokie kristauei soilik, kristauak ez direnentzat ere garrantzitsua baita.

Mendeak joan, mendeak etorri, gizarteak elizak izan duen garrantzia aldatu egin da, eta baita eliza bera ere. Herriaren hain helduak ez direnak ere gogoan izanen duten bezala, «garai batean kanposantuek ez zuen apenas esanahi berezirik, elizan bertan bai-

zuden hilobiak». Familiaren ehortz-lekuen gainean etxeko aulkiak igota entzuten zuten leitzarrek meza. Horrek klasismo gogor bat ere bazekarkien, ugazabek bakarrik baitzeukaten horretarako aukera. Hau da, maizterrak ez zituzten elizan ehortzen, ez zuten horretarako eskubiderik eta honetaz gain, ugazaben artean ere mailak zeuden; are eta aberatsago, orduan eta aldaretik gertuago kokatzen zuten hilobia. Ordundik hainbat gauza aldatu diren arren, gure hildakoei zor die-

gun errespetua denontzat da garrantzitsua. Begirune horrek har ditzakeen formak ugaritu egin dira. Ehorzketa ez da aukera bakarra, egun, leku arazoak direla eta, horma-hobiek gora egin dute. Hala ere, aldaketa sakonena errausketek ekarri dute. Elizak honen inguruan ez du ezer ez aipatzen. «Elizak beti gure arbasoei errespetoa zor diegula esan du, eta hauek gogoan izan behar ditugula», dio Patxi Izok abade berriak. Baina gure kulturaren hildako eta leku fisikoen artean dagoen lotura kontutan hartuta, «errautsak itsasora bota eta gero nora joan lore bat jartzera?». Leitzan errausketak orokorrean ekarritako aldaketa hori ez dela somatzen ere argi utzi zuten biek.

Kanposantua txukunago

Bautista bikarioak, urte askotan Leitzako abadea izan denak, gogoan du duela 21 urte Leitzara etorri zenean kanposantuek zuen itxura. «Abandonatu xamarra zegoen». Bere ustez, duela gutxira arte kanposantuek ez dira zaindu, ez baitzaie garrantzia gehiegi eman. Lehenago leku askotan Santuen Eguna baino lehenetxeago bakarrik joaten zen

J. BAUTISTA IRAZOKI ABADE OHIA

«Hau guztia ez dagokie kristauei soilik, kristauak ez direnentzat ere garrantzitsua baita»

PATXI IZOK ABADE BERRIA

«Elizak beti gure hildakoei errespetoa zor diegula esan du, eta hauek gogoan izan behar ditugula»

jendea hilobiak garbitzera. Orain, berriz, askoz ere hilerria askoz txukunago ikus daitekeela onartzen du abadeak, «jendearen mentalitatea aldatzen ari da».

Leitzako kanposantua, adibidez, konponketa lanak egin ondoren, txukun-txukun geratu da. Berrikuntza hauek denontzat onuragarriak izanen dira, bereziki goitik behera jarritako eskailerak. Izan ere, lehenago behean norbait ehortzi behar bazen eta eurria ari bazuen, izugarrizko lokatzak egiten ziren. Orain, berriz, eskailerekin ez da horrelako arazorik izanen. Pareta ere moldatu dute, eta orain zuri-zuri geratu da.

Elizan 1954an egin zituzten obrak ezinbestekoak izan ziren hilerriak egun duen garrantzia hartzeko. Lurrarzpian zeuden hildakoen hezurak alboetara bildu zituzten, eta honetaz gain, elizaren bi aldeetan familia bakoitzari *borobiltxo* bat egokitu zitzaion, hildakoak gurtzeko txokoa.

Herriko elizan hau noiznahi ikus dezakegun arren, beste elizetan ez da ohikoa. Juan Bautistak argi utzi du hau ez duela beste inon ikusi. «Leitzako elizaren berezitasuna da eta ez dut beste inon topatu». Horrexegatik, ongi erreparatu gero, borobil bakoitzak zenbaki bat duela ikus daiteke. Familien zerrenda apezak gordetzen du, norbaiti kandelaren bat jarri nahi izanez gero.

Lur-emaileak izan duen papera ere oso garrantzitsua izan da beti, hildakoren bat ehortzeko momentuaz gain, urtean zehar berak kanposantua zaintzen baitzuen. Gainera diru pixka baten truke, eskatuz gero, nahi zenuen hilobia txukuntzeko aukera ere ematen zuen. Orain, ordea, inork ez du lan hori egin nahi, eta horrexegatik Irache Tanatorioak egiten du, baina Juan Bautistak dioen bezala, «hauek ez dute hilerria zaintzen», joan-etorria beste-rik ez baitute egiten.



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 31, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzera

15

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez

17

hotzera

15

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. 18:00etatik aurrera, Pirritx eta Porrotx pailazo taldeak *Maite zaitut* ikuskizuna eskainiko du frontoian doan. Aurtengo San Miguel festetan eguraldia txarrarengatik bertan behera gelditu zen saioa eta horregatik antolatuta nahi izan dute berriro Udaletik.

Tolosa. Santu Guztien Eguna dela eta, bihar hiribusarentzat ordutegi berezia ezarri dute: Tolosatik kanposantura, 09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan, 13:00etan, 15:00etan, 16:00etan, 17:00etan, 18:00etan. Kanposatutik Tolosara, 09:30ean, 10:30ean, 11:30ean, 12:30ean, 13:30ean, 15:30ean, 16:30ean, 17:30ean eta 18:30ean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregiaren eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

Tolosa. *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien baitan, *Topaketa* erakusketa Leidor aretoan azaroaren 12a bitarte, eta Fronton jatekian azaroaren 17ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irratiak

(107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitza errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti*.
21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia*.

▶ HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Helduenak ere, umeen pare

BELAUNTZA ▶ «Giro bikaina eta herritarren parte-hartzea zabala» nagusi izan zen herenegun ospatu zuten Jubilatuen Egunean



Eguneko lehen ekitaldia meza izan zen Belauntzako jubilatuentzat. HITZA



«Giro bikaina» izan zen nagusi Benta tabernako bazkarian. HITZA

Hasiera baino ez zen izan hori; izan ere, ondoren toka txapelketaren txanda izan zen. Gehientsuenek hartu zuten parte eta «giro bikaina» izan zen nagusi. Bi mailatan banatu ziren parte-hartzaileak; bate-tik, emakumezkoen taldea eta, bestetik, gizonezkoena. Lehenengoan, Maritxu Gaztelumendi izan zen garaila eta Ramon Dravasa suertatu zen gizonezkoen korik abilena.

Ondoren, Benta tabernan bildu ziren guztiak bazkari legerako. «Jende oso alai zegoen eta egun biribila izan zen», azaldu du Belauntzako alkate Eudurne Arbelegik. Bertaratu guztiak jaso zuten oparixoa: emakumezkoentzat, te-jokoa eta gizonezkoentzat, erloju eta kartera. Halaber, zozketa batean parte hartzeak aukera izan zuten jubilatuek. Hala, Maite Arregik eta Pedro Juan Etxabek irabazi zuten saria. Benta tabernak ere bi gazta oparitu zizkien Luis Arbizu eta Izaskun Arregiri.

Alkateak adierazi duenez, «eguraldiak ere lagundu zuen eta beroak lagunduta asko animatu ziren jubilatuek; bazkalosteko bertso musikatueta asko abestu zuten guztiak ere». Hurrengo urtera begira dira dagoeneko bai Udalekoak bai jubilatuek ere.

ERREDAKZIOA

A din nagusitasunera heldu da Belauntzako jubilatuen omenez urtero ospatu ohi duten eguna. Hala, herenegun eginikoarekin 18. edizioa batu zuen Jubilatuen Eguna. Eta, urtero legez, belauntzarrek ederki asko igaro zuten eguna. Goizean goiz ekin zioten jaiari herritarrek eta meza nagusian bildu ziren 30 lagun inguru.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Zorionak Eneko! Gaur urte bat. Muxu handi bat, Irati, ama eta aitaren partetik.

URTE ASKOAN
Jon Etxeberria Garmendia (Tolosa). Gaur 3 urte. Zorionak eta muxuak ebekoen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...